68

# etxalde

nekazaritza iraunkorra

2022 urtarrila-otsaila



## “SISTEMA BERRI BATZUK IPINI DITUGU MARTXAN, BEHIAK JEZTEKO UNITATE MUGIKORRA ETA ARTZAINTZA BIRSORTZAILEA”

**23** Sagardotegi denboraldia merezi dugulako!

**15** ¿QUÉ ES LA «AGRICULTURA» CELULAR?

**18** Ipar Euskal Herriko hautetsiek ezezkoa eman diote AHTari

# AURKIBIDEA


**3** EDITORIALA:
- La importancia de abordar el debate sobre el modelo de producción

**4** IRITZIA
- Nekazaritza eta abeltzaintzan oinarrizko lanbide heziketa sortu nahi dute Elorrion -Lourdesko Ama Ikastetxean- *Igor Basterretxea Kerexeta*

**5** BERTSOEN TXOKOA

**6** ELKARRIZKETA:
- Belaze

**9** BERRIAK:
- 12 asociaciones presentan queja ante el Defensor del Pueblo por dejación de funciones del Gobierno de Navarra ante contaminación de acuíferos en Marcilla

**10** BERRIAK:
- Nekazaritzak badu etorkizuna, arduraz joka dezagun

**12** BERRIAK:
- Sagardotegi denboraldia merezi dugulako!

**15** BERRIAK:
- La producción celular

**18** IPAR EUSKAL HERRIA:
- Ipar Euskal Herriko hautetsiek ezezkoa eman diote AHTari

**20** IPAR EUSKAL HERRIA:
- Pettan Prebende

**22** BERRIAK:
- Colegio Lourdesko Ama Elk de Elorrio. Cooperativa quiere abrir una oferta de Formación Profesional Básica, especializada en el sector agrario, para el curso 2022-2023

**23** BERRIAK:
- Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak Ekolurra bereizgarria aurkezten du

**24** BERRIAK:
- ECVC asume la coordinación general de La Vía Campesina

**26** IKERKETA:
- La Gilda del Norte

**29** GOMENDIOAK ETA FORMAZIOA








# La importancia de abordar el debate sobre el modelo de producción

El nuevo año ha arrancado con una intensa presencia mediática del sector agrario, activada en gran medida por un alarmismo desmedido sobre las declaraciones del ministro Alberto Garzón. Quien haya leído dichas declaraciones se estará preguntando el motivo de tanto revuelo, puesto que obedecen a una descripción objetiva de las consecuencias de la ganadería industrializada en torno a las "macrogranjas". Una de las posibles respuestas puede apuntar a la dimensión de los intereses económicos y políticos que se han ido acumulando en torno a los "lobbys" agroganaderos y la agroindustria. Si bien la falta de rigor ha sido un elemento destacable en el debate mediático, es importante subrayar que la conclusión determinante debe ser que es imprescindible abordar el debate del modelo de producción alimentaria, para poder abordar procesos de desarrollo hacia la sostenibilidad. Y empezando por casa, porque nos interpela de manera directa aunque la intensidad no sea uniforme. El aumento de la producción ganadera y aviar en modelos intensivos e industriales es una realidad también en Hego Euskal Herria, aunque en Nafarroa sea más intensa. Y el formato predominante en los modelos intensivos está ligado a la integración de la fase productiva, caracterizada sobremanera en la dependencia casi absoluta de la compra de insumos externos para la alimentación animal. Por lo tanto cualquier proceso de transición hacia modelos más sostenibles debe ir acompañada de importantes medidas de política agraria, que posibiliten ir reduciendo esa dependencia para otorgar mayor autonomía a la fase productiva. La incidencia de la subida de los costos de producción en ganadería está golpeando de manera más virulenta a las explotaciones con mayores niveles de dependencia de compras externas. La producción de leche de vacuno es uno de los exponentes más claros de la vulnerabilidad que supone la producción intensiva. Ahí debemos situar el proyecto "Kaiku Berdea" presentado públicamente a bombo y platillo este mes. La música del proyecto no suena mal, pero todavía falta conocer la letra en forma de propuestas de actuaciones concretas en toda la cadena, desde la producción hasta el consumo. En el plano teórico los mecanismos parecen que están definidos, incluidos los financieros. En un sector en el que se ha manoseado en demasía el concepto de sostenibilidad como envoltorio sin profundizar en el concepto desde la práctica, la credibilidad hay que ganársela con hechos. El tránsito hacia un modelo más sostenible en la parte productora debe ser una prioridad, definiendo distintas escalas de actuación adecuadas a cada explotación; pero sobre todo incentivando dinámicas y sentimientos de colectividad. Y ante todo debe ser un proceso transparente, con indicadores de verificabilidad claros. Nuestra voluntad de acompañar y estimular procesos hacia modelos de producción más sostenibles es clara, pero el continente debe ir acompañado con un contenido muy definido. Si dotamos ese contenido de actuaciones concretas, también estaremos alimentando nuevos espacios de colaboración que deben formar parte del proceso.


etxalde
nekazaritza iraunkorra

bidean | euskararen bidean

etxalde@etxalde.eus
www.elikaherria.eus

Lege Gordailua:
SS 50-2015

Editorea: **Etxalde Nekazaritza Iraunkorra Elkartea**
Diseinua eta maketazioa: **Diseinu eta Komunikazioa AULESTI S.L.**
Inprenta: **Gertu S. Coop.**
Maiztasuna: **Bihilabetekaria**
Aleak zenbakiko: **4.650**

IRITZIA

# NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZAN OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA SORTU NAHI DUTE ELORRION -LOURDESKO AMA IKASTETXEAN-



**Igor Basterretxea Kerexeta**
Lourdesko Ama Ikastetxeko Zuzendaria



Ez gara engainatuko, ez dira garai onenak hezkuntzan ezta nekazaritza eta abeltzaintza sektorean ere. Ikastetxeak orokorrean gero eta larrituta gaude gizartean jaiotza-tasa berantza doala ikusita eta honek, Eusko Jaurlaritzatik soluzioak aurkitzen ez badira, sortu ahal dituen arazoekin. Gure kasuan gainera kontuan izan behar dugu Elorrio moduko herri batean hiru ikastetxe garela.

Lourdesko Ama Ikastetxean orain dela urte batzuetatik argi daukagu datozen garaiei aurre egiteko kalitatezko hezkuntza bat eskeini behar dugula, desberdinak izan -beti onerako- eta besteok ez daukaten zeozer eman. Gauzak horrela, adibidez, bost bat urte dira Proiektuetan Oinarritutako Hezkuntzan murgilduta gaudela.

Baina horren aurretik -orain dela 15 bat urte gutxienez- Eskola Baratzearekin hasi ginen ere. Hori dela eta, gaur egun, negutegi bat eta hainbat baratze ditugu, ikasleek -1. LHtik 2. DBHra- bertan klasean emandakoa esperimentatzen dutela labore desberdinekin, eta gero etxera eramaten dituzte barazki desberdin edota arrautzak. Gainera, salgai jartzen ziren -azken bi urtetan Covid dela eta ez da posible izan- Elorrioko Ferixa Nauxikoetan.

Gaur egun "Txoko Berdea" izenaz ezaguna, gure proiekturik interesgarrienetariko bat izaten jarraitzen du, eta, horregatik, Lehen Hezkuntzako maila guztietan orduak gehituz proiektu honen aldeko apustua egitea erabaki dugu. Eta gutxi bazen ere antzinako aldalekuak, baratzen ondoan daudenak, berriztu ditugu bi gela berri sortuz: bat klaseak edota azalpenak bertan emateko eta bestea, sukalde txikitxo bat modukoa, non batzuetan gure ikasleok barazkiak garbitu, entsalada goxo-goxoak prestatu eta, nola ez, jan egiten dituzte.

Beno, ba aurreko ikasturtean, oraindik urrunago joateko ideia sortu zitzaigun. Lehen esan dudan moduan, alde batetik egoera kaxkarra datorrela ikusita; eta bestetik, gure ingurua, naturaren erdian -baserrien artean- gaudenez aprobetxatuta eta gure aurrekoak aztertuta, zera pentsatu genuen: Nekazaritzan eta abeltzaintzan Oinarrizko Lanbide Heziketa bat martxan jartzen badugu, zer? Ideia potoloa, bai, fijo, zalantza barik! Erronka berri bat! Baina, zergatik ez?

Aurreko ikasturtearen amaieran, apirilatik aurrera, proiektu honetako lehenengo urratsak ematen hasi ginen. Eta birritan pentsatu barik Derioko Nekazal Eskolarekin kontaktuan jarri ginen, bere zuzendariarekin hain zuzen ere. Bilera bat izan genuen eta asmoa proposatu genion. Zein izan zen gure sorpresa berak ere oso interesgarria ikusi zuela eta lehenengo momentutik laguntzeko prest zegoela.

Gero, kontuan izanda Durangoko Maristekin -Lanbide Heziketan aditua den Ikastetxea- alianza zuzena daukagula, haien bitartez bai HETELeko presidentearekin bai Hezkuntzako Antolaketa eta Planifikazio zuzendariarekin bilera bat izatea lortu genuen. Haiek esanda moduan, azaroaren amaierako aurkeztu genuen beharrezko guztia eta oraintxe haien erantzunaren edo erabakiaren zain gaude. Horixe da oraingo egoera. Baietza ematen badigute, ba azken txanpan sartuko ginateke, ikasleak gehien bat izateko edota lortzeko, gure eskaintza zabalduz, eta hurrengo ikasturtean hasteko.

Momentuz hauek dira bidai honi aurre egiteko prest dauden enpresak edota erakundeak: - Sektoreko hamaika enpresa: Elorrixotik (Azkarrena S.C., Aitzol Basauri, Karlos Ibarrondo, Mendrakako txakolina, Etxetxiki eta Valentín Jauregi); Abadinoko Iñaki Azkoaga; Lezamatik Magalarte upeltegia; Sondikako Orur S.A., Muxikako Ariatza eta Zerainetik Lumagorri. - Sektoreko lau erakunde: EHNE, ENEEK, Lorra eta Durangaldeko Landagarapena.

Jadanik gure motibazioa handia bazen, empresa eta erakunde hauekin hitz egin eta gero, oraindik gehiago handitu da. Ideia sortu zitzaigunetik erronka oso garrantzitsu moduan hartu genuen eta burubelarri gabiltza aurrera ateratzeko, hasieratik kontzienteak izan ginelako, ze inportante izan daitekeen horrelakorik nekazal eta abeltzaintza sektorerako, lurralderako eta gazteen etorkizunerako.






## BERTSOEN TXOKOA

**Hautsak harrotu dizkigu**
**Garzonek eta noraino**
**makroikuiluen usaina**
**guztion sukalderaino**
**ganaderitza industrialak**
**zenbat neke, zenbat laino**
**neurri gabe intentsifikatu**
**neurri gabeko engaino**
**boto batzuk lortu nahian**
**eskuma larri, matxino**
**baina halako eztabaidarik**
**ez dugu izan gaurdaino**
**Mixelen aspaldiko hitzak**
**inoiz baino biziago oraino**
**hobe hiru etxalde txiki**
**haundi erraldoi bat baino**

**Hainbeste zaratarekin**
**entzungo ote da mezua**
**eztabaidatu dezagun**
**behingoz behar den eredua**
**inorentzat ez da ona**
**gaurko bi abiadatakua**
**haundi horiek txikiak janez**
**mundu hau da infernua**
**neurri egokira ekarrita**
**askorentzat da lekua**
**Klima, Herria, herritarrak**
**zaindu ta aldatu patua**
**beste aukerarik ez dugu**
**bera bakarrik justua**
**Nekazaritza iraunkorra**
**gure betiko apostua**








# BELAZE

## Berenice Lopez (Mexico, 1989) eta Markel Garaizabal (Elorrio, 1988)

> **SISTEMA BERRI BATZUK IPINI DITUGU MARTXAN, BEHIAK JEZTEKO UNITATE MUGIKORRA ETA ARTZAINTZA BIRSORTZAILEA**

Flevick arrazako behien esnearekin jogurta eta gazta freskoa egiteaz gain, okela, ortuariak, kontserbak eta arrautzak ere ekoizten dituzte, besteak beste; baserriaren jarduna bertatik bertara ezagutzeko aukera eskaintzen dute asteburuetan, antolatutako bisitetan.

**@bezalezaporeak**

### ZER DA BELAZE?

Belaze gure proiektua da. Gu biok hasi genuen proiektua, baserrian bizitzeko asmoarekin. Egia esan, Belaze izena orain dela bi urte jarri genion, egitasmoa aldatu eta definitu genuenean, baina baserriko kontuekin orain dela hamar urte inguru hasi ginen, ortuariekin otzarak egiten.

### ZE ALDAKETA EGIN ZENUTEN ORAIN DELA BI URTE?

Pixkanaka-pixkanaka, gero eta gauza gehiago egiten joan gara; orain dela bi urte esne behiak ipintzea erabaki genuen, eta dagoeneko urtebete da jogurtak saltzen hasi ginela.

### ZE ARRAZAKO BEHIAK DIRA?

Hasiera batean hasi ginen okelatarako behiekin, Pirenaikoekin. Ondoren, trantsizio bat egin eta Flevick arrazakoak ekarri genituen, erdiak txahalak hazi eta okeletarako eta beste erdiak esnetarako. Baina gaur egun behiek ematen duten esne guztia erabiltzen dugu, eta egin duguna izan da beste abeltzain batekin elkartu; berak hazten ditu gure txahalak eta ondoren guk komertzializatu. Flevick arrazako behiek oso kalitate oneko esnea daukate; kantitatea, berriz, ez horrenbeste.

### JOGURTEZ GAIN, ZE BESTE PRODUKTU ESKAINTZEN DUZUE?

Gazta freskoa ere egiten dugu eta sasoiko barazkiak ere izaten ditugu. Kontserbak ere egiten ditugu: irasagar dultzea, sagarrezko dultzea, marmelada batzuk… Sagar zukua ere bai. Eta hortik aparte, oilo arrautzak eta txahal okela saltzen dugu. Orain, txerri batzuk ipintzekotan gaude.

### TXERRIAK ERE BAI?

Bai, baditugu batzuk, baina gehiago ipintzekotan gaude, kanpoan, basoan. Egin dugu lehen froga, okela saldu dugu ontziratuta freskoan eta egin ditugu saltxitxak, txorizoa eta saltxitxoia ere. Aurten proiektu hau martxan jartzeko asmoa daukagu.

### NOLA EGITEN DUZUE MERKATURATZEA?

Zuzeneko salmenta egiten dugu inguruko herrietan, ahoz aho egindako bezeroak dira. Gutxi gorabehera hilean behin eramaten diegu generoa. Horrez gain, denda batzuetara ere eramaten ditugu produktuak: jogurtak, marmeladak eta dultzeak. Orain dela urtebete Durangoko plazara joaten ere hasi ginen.

> **Zuzeneko salmenta egiten dugu inguruko herrietan, ahoz aho egindako bezeroak dira.**

### BASERRI MUNDUTIK ZATOZTE?

***Markel:*** baserrian bizi izan naiz beti, baina ez da egon aktibitate profesionalik. Hala ere, etxeko ortua geneukan eta aitak behi batzuk… Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak ikasi nuen, eta hori bukatzean hasi nintzen baserria aukera bat bezala planteatzen.

***Berenice:*** ni mexikarra naiz, DFkoa. Ez neukan baserri munduarekin zer ikusirik.

### NOLAKO ESPERIENTZIA IZAN DA BASERRIRATZEA?

Orokorrean ona. Guk guztia egin dugu guri iruditu zaigun moduan; egia da ez garela hasi zerotik, lurrak-eta eduki ditugu, baina sistema berri batzuk ipini ditugu martxan, behiak jezteko unitate mugikorra eta artzaintza birsortzailea. Orain artekoa positiboki baloratzen dugu.

### AZALDUKO DITUZUE SISTEMA HORIEK?

Behiak jezteko unitate mugikorra orga bat da, eta bi gurpil hidrauliko ditu, jaitsi eta igo ahal direnak egin. Horrek traktorearekin nahi duzun lekura, behiak dauden lekura, mugitzea ahalbidetzen du. Behin lurrean, abeltzaina erdian jartzen da eta bi sarrera ditu behientzako.





Abeltzaintza birsortzaileari dagokionez, partzelak edo zelaiak zati txikietan banatzen ditugu, eta egun bakoitzean zati horretako batean sartzen ditugu behiak. Horrela, kontsumoa homogeneoa da, totala, baita abonua ere. Ondoren, beste partzela batera mugitzen ditugu. Metodo honi esker, belar kimuak baketan hazten uzten dira, eta azkarrago eta gehiago hazten dira.

Oilaskoekin ere antzerako zerbait egiten dugu. Chicken tractor izeneko egurrezko kaiolak dira, eta alanbrea dute kanpotik behiengandik babesteko. Izan ere, behiak dauden zelai berean egoten dira, eta gutxi gorabehera 3x3 metroko espazioko belarra jaten dute. Beraien ongarria oso ona da belarrarentzat, eta oilaskoek ere kalitatezko belarra jaten dute.

### ZE MOTAKO PRODUKZIOA EGITEN DUZUE?

Gure filosofia agroekologian oinarritzen da, baina guztia ez daukagu ekologikoan. Adibidez, oiloak kanpoan hazten ditugu, baina ematen diegun pentsua ez da ekologikoa, transgenikorik gabekoa, hori bai. Behiak eta ortuaria, ostera, ekologikoan ditugu.

Aipatu ditugun produktu guzti horiek ekoiztu eta merkaturatzeaz gain, beste zerbitzu bat ere eskaintzen duzue, bisita gidatuena.

Bai, orain dela sei hilabete hasi ginen bisitekin. Gure lagun bat ere gure proiektuaren parte da, eta berak antolatzen ditu asteburuetako bisitak. Berak dioen moduan, esperientzia-bisitak dira, ibilbide aktibo baten bidez baserria bertatik bertara ezagutzeko. Oilotokia ikusi, behiak jezten ikusi eta azalpena entzun… Ibilbide horretan, pista jokoa ere egiten da, harri batzuk egoten dira pistekin, eta umeek horiek topatu eta harrietako irudien inguruan azalpentxoak ematen ditu gidak. Belar munduaz ere aritzen da. Azkenik, lur eta haziekin ereiteko balio duten bolatxoak egiten dituzte partе-hartzaileek eta bisita borobiltzeko jogurta dastatzen dute.

### BASERRITIK BIZI DAITEKE?

Gure kasuan, duda barik, bai. Baina guk lurrak, traktorea… izan ditugu. Hasierako oinarria izan dugu. Ezer ez daukan batentzat oso zaila izan behar du.

### ETA POSIBLE DA NORBERARENTZAT DENBORA ATERATZEA?

Asko kostatzen da. Bisiten kontua delegatu egin dugu, eta arratsaldeetan laguntzaile bat daukagu. Orain behintzat karga apur bat kendu dugu. Lehen egun guztia okupatuta eta gauzak egitera ez ginen heltzen; orain, aldiz, egun guztia okupatuta eta gauzak egitera heltzen garela sentitzen dugu.

### ETORKIZUNERAKO PROIEKTURIK?

Gure proiektua hauxe da. Orain, gauza txikiak aldatzen edo hobetzen joango gara, eta helburua irautea izango da.


















## 12 colectivos presentan queja ante el Defensor del Pueblo por dejación de funciones del Gobierno de Navarra ante contaminación de acuíferos en Marcilla

**12 colectivos (ALNUS, Compañía de las 3 Erres, Ecologistas en Acción, Ekologistak Martxan, Etxalde, Fundación Sustrai Erakuntza, Greenpeace, Hacendera, Lurra, Marcilla Vive, Urbizi y REAS) hemos presentado una queja ante el Defensor del Pueblo por la preocupación que provoca la dejación de funciones del Gobierno de Navarra a la hora de actuar sobre aquellas actividades agrarias y ganaderas que están contaminando el acuífero de Marcilla, y que están poniendo en peligro la Salud Pública de la población, así como el cuidado de un bien común como es el agua.**

El pasado 11 de agosto, el Ayuntamiento de Marcilla notificó al Servicio de Economía Circular y Cambio Climático la contaminación por **altos índices de nitratos del barranco de Valtraviesa.** La mayoría de estas aguas acaban llegando al nivel freático afectando a la masa de agua subterránea de la margen derecha del río Aragón. **Este acuífero suministra agua tanto de boca como a la industria agroalimentaria de la zona.**

Con una rapidez inusitada, el 18 de agosto, el Servicio de Economía Circular y Cambio Climáticoresponde con un informe de valoración sin firmar, en el que reconociendo la contaminación por nitratos en el término de Marcilla y la falta de control, **se limita a señalar la complejidad del problema** y la intención de evaluar "cómo realizar una modelación de los mecanismos que tienen relevancia en la presencia de nitratos". Junto a ello, **recomienda al Ayuntamiento de Marcilla,** "dada la incertidumbre de que los niveles de nitratos se reduzcan en breve plazo" se **haga uso del agua del embalse de Itoiz.**

Se da la circunstancia de que en esa zona se está produciendo un **gran desarrollo de la ganadería industrial intensiva,** tanto por la implantación de nuevas y grandes granjas, como por la utilización de terrenos de labor para verter en ellos sus purines. Aparentemente se está produciendo una **mala gestión de estiércoles y purines,** y en concreto, se tiene constancia de que algunas parcelas serían utilizadas por varias explotaciones a la vez. Esto implica un riesgo de sobre-fertilización, y por lo tanto contaminación por nitratos. Es relevante también indicar que entre las explotaciones ganaderas que utilizan las citadas tierras como vertederos de sus purines **se encuentra la macrogranja de Caparroso Valle de Odieta.**

Los colectivos que presentamos esta queja consideramos que la respuesta del Gobierno de Navarra pidiendo a Marcilla que se abastezca de agua de Itoiz adolece de falta de responsabilidad, eficacia y contundencia para identificar y eliminar las actividades contaminantes que representan un peligro para la salud pública y ambiental. Creemos que **es necesario aumentar los controles públicos a las actividades de estas granjas, y frenar su desmedida expansión.** Es por ello que, en el marco de sus competencias, nos dirigimos al Defensor del Pueblo para que intervenga en la protección de los derechos a la salud pública y ambiental de la población.



# Nekazaritzak badu etorkizuna, arduraz joka dezagun

**Las organizaciones sindicales y asociaciones agrarias de Bizkaia han trasladado un mensaje muy claro mediante esta concentración en Bilbao, NEKAZARITZAK BADU EORKIZUNA, ARDURAZ JOKA DEZAGUN/LA ACTVIDAD AGRARIA TIENE FUTURO, ACTUEMOS CON RESPONSABILIDAD.**

Esta movilización se encuadra en la dinámica de exigencia de precios justos que cubran los costos de producción para seguir manteniendo nuestra actividad de producción alimentaria. Reclamamos la aplicación inmediata de la Ley de la Cadena Alimentaria. No podemos aceptar que se siga permitiendo que la distribución mantenga la sartén agarrada por el mango, y nos siga condenando a unos precios que siguen sin cubrir los costes de producción. La crisis estructural del sector agrario, y muy especialmente los subsectores ganaderos, requiere de respuestas inmediatas y audaces.

Exigimos a las Administraciones (Vascas y estatales) y los partidos políticos que realicen las actuaciones necesarias para que sea posible la aplicación inmediata y real de la recién reformada ley de Cadena Alimentaria, con objeto de que se pueda superar la actual situación con una cadena insostenible e injusta basada en la producción de alimentos por debajo de costes.

Si queremos caminar por la senda de la sostenibilidad del modelo de agricultura familiar, las administraciones vascas deben articular mecanismos de política agraria que aumenten la autonomía de las explotaciones agroganaderas en la fase productiva, que permita disminuir la dependencia de la compra de imputs externos; y posibilite avanzar hacia modelos de producción con mayor equilibrio entre el número de cabezas y las tierras disponibles. La sostenibilidad debe implicar aspectos medioambientales, económicos y sociales.

No puede existir una sociedad sana sin un entorno y una alimentación sana y sostenible. La producción agraria es esencial en un país para dar respuesta al reto de la crisis climática y a la Soberanía Alimentaria. La actividad agraria contribuye a la vertebración del territorio y al bienestar de la población. Por ello reclamamos articular ambiciosos planes de incorporación de nuevas personas a la actividad agraria, y debe ser una prioridad incuestionable para las administraciones vascas.





# azalera handiak badute nundik ikasi






# Sagardotegi denboraldia merezi dugulako!

## Pasioa eta ilusioa: sagardo berria dastatzeko garaia iritsi da!

Urtebete igaro da joan den urtarrilean egoera ezegonkor baten menpe. Denboraldiari hasiera eman genionetik. Ordutik, hainbat arau eta egoerari aurre egin behar izan dio sektoreak, eta espazio seguru, erakargarri eta erosoak sortzeko konpromisoa izan da bere lanerako bidea. Sagardotegi garaiak duen adierazgarri nagusia Sagardo Berria dastatzea da, otordu Eder baten bueltan. Sagardotegi denboraldia merezi dugulako, sagardo berria dastatzea merezi dugulako ekingo diogu gogoz 2022ko Sagardotegi Denboraldi berriari.

## Sagardotegiaz gozatzeko hainbat bide eta modu

Sagardotegietan otorduaz aparte hainbat ekintza egiteko aukera dugu. Berrikuntza moduan 2022ko Sagardotegi Denboraldian Sagardo Dastatze Gidatuak eskainiko ditugu otorduaren aurretik, zenbait sagardotegitan. Beste hainbat bisita eta produktu eskaintzeaz gain, dastatze gidatua bezalako produktuak eskatu dizkigu joan den urteotan bertako bezeroak, eta hori dela eta hartu da hemendik aurrera hori eskaintzeko erabakia. Aukera aparta baita Sagardogilearen eskutik produktuaren berezitasunak jasotzeko.

Horretaz gain, bezeroari erraztasunak emate aldera, Euskal Sagardoen online denda eta Sagardotegietan otordua egiteko erreserba sistema ere martxan ditugu sektorean. Online dendaren bereizgarri nagusia sagardo desberdinen konbinazioak osatzea da, laurogeita hamar sagardo baino gehiago ditugu eta dendan, jendeak eskatu eta etxean jaso ahal izango dituenak. Sagardotegian automatikoki mahaia erreserbatzeko aukera ere ematen du sagardoa.eus webguneak: sagardotegia aukeratu, mahaikide kopurua jarri, aurrerapena ordaindu eta klik batean mahaia erreserbatuta gelditzen da! Deirik egin edo emailik bidali gabe. Sistema honek joan den urteotan arrakasta handia izango du gure bezeroen artean, eta aurten sagardotegi gehiago automatikoki erreserbatzeko aukera izango da!

## %10-%20 arteko igoera izango du sagardoak

Ez da urte erraza izan 2021a, ez eta 2020a ere, baina sagardo sektoreak bat eginda, oraingo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko konpromisoa hartu du. Horren adibide da 2021. Urtean sagardogile guztiek elkarrekin osatu duten Plan Estrategikoa. Plan Estrategikoa eta sektorearen bateratzea, Euskal Sagardoa Jatorri Deitura proiektuaren baitan. Bertako sagarra eta bertako ekonomia zirkularra aktibatzeko helburu argiarekin. Baita sagardoaren errentagarritasuna eta sagardotegien etorkizuna lantzekoa ere. Azken urteko igoerak medio, sagardoa %10-%20 artean igoko da bataz beste 2022 urtean. Sagarra, beira, kartoia, argindarra… guztiak egin du gora eta sagardoak ere gora egingo du ezinbestean, lehendik ere errentagarritasun baxuko produktua izaki, gaur egungo egoerara moldatzen joateko.

Bertako nekazaritza, bertako ostalaritza eta bertako banaketa sistemak uztartzen dituen eremua da sagardoa. Bertako ekonomia sustatzen du, lanpostuak eta aberastasuna bertan sortuz. Baina sagardogintzak, bideragarria izateko, eskaintzen duenaren neurriko prezio bat behar du. Sagardoari merezi duen aitortza eta balioa jarri behar zaio.

## Uzta handia eta sagar moten garrantzia bertako sagastietan

2021a sagar urte handia izan da Euskal Herriko sagastietan kopuruz, eta sagardotegiek aukera paregabea izan dute upategian uzta eder hau baliatzeko. Euskal Sagardo desberdinak dastatzeko aukera izango du kontsumitzaileak, Euskal Sagardoak biltzen dituen sagar mota desberdinak aukeran izan baititu sektoreak. Orokorrean, iaz baino sagardo arinagoak dira aurten, lurrintsuak eta alkohol graduazio bajuxeagokoak. Uzta handiak direnean normala izan ohi dena da bestalde, eta aurtengoa inoizko uzta handiena izan da Euskal Sagardoa Jatorri Deiturarentzako. Guztira 5 milioi kilo sagar Bildu dira Jatorri Deiturako 250 sagastietan eta 3,5 milioi litro Euskal Sagardo egin dira. Euskal Sagardoak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 49 sagardotegi biltzen ditu gaur egun eta 250 sagargile.

Bereizgarri moduan, zenbait sagardotegik sagar mota jakineko Euskal Sagardoak dituzte aukeran aurten: sagar mota bakarrekoak, edo bi, hiru edo lau sagar motaz egindakoak. Sagasti berrien diseinuak, hauek produkzioan sartu izanak eta sektorearen arakatzeko nahiak eragin du hau eta geroz eta gehiago izango dira sagar jakinen izen abizenak dituzten sagardoak merkatuan. Orain sagardo berri hori dastatzeko aukera paregabea dago kupeletik, mahaian. Etorri eta gozatu!










# LA PRODUCCIÓN CELULAR

**Esta ficha se ha elaborado desde ECVC junto con Gilles Luneau, periodista francés que ha trabajado con regularidad con la Confédération Paysanne. Comenzó a investigar hace siete años sobre la emergencia de la carne celular sobre todo en Estados Unidos.**

## ¿QUÉ ES LA «AGRICULTURA» CELULAR?

Fabricar de forma industrial productos que habitualmente proceden de la naturaleza y de los animales (carne, huevos, cuero, seda). Es fabricar in vitro. Para ello, basta con coger una célula madre (un trozo pequeño de carne es suficiente) y cultivarla en un líquido biológico o de síntesis. Este método es conocido por ser utilizado para tratar las quemaduras graves.

### La “carne” celular

Esta industria pretende producir músculo. Sin embargo, en un animal entero, hay una interacción con los fluidos linfáticos, el estrés, etc. El cuerpo está constituido por lo que come el animal. En este tema, existe una guerra de patentes actualmente. Se han presentado 3 o 4 patentes, pero aún no hay normativa de la UE. También existen investigaciones sobre el pescado, los insectos y la harina de insectos sintética.

Es complicado saber cuál es la alimentación de estas células madre. Es uno de los secretos de la industria. Al principio, se alimentaban del suero fetal bovino. Era caro y vergonzoso, especialmente para los vegetarianos. Ahora parece que se trata de suero sintético. Podrían ser hormonas sintéticas.

De este modo, el resultado de la carne celular es una especie de carne picada. Este conjunto de células suele estar estructurado por harina de guisantes o fibras vegetales que también evolucionan por síntesis. Las proteínas vegetales también se producen por síntesis. Intervenimos en sus células para que las levaduras y los hongos expresen la proteína deseada. La mayoría de los llamados platos preparados veganos suelen estar compuestos por estas proteínas sintéticas. Las proteínas de estos productos no son todas sintéticas (también pueden extraerse de secciones de ADN, por fragmentación).

El único interés de esta tecnología es hacerse con un mercado, convencer económicamente de que podemos sustituir la cría de ganado. Así, la estrategia que adoptan las empresas es la de ir hacia mercados de alta gama con el objetivo de garantizar una imagen positiva.

## LOS ACTORES

Todo proviene de Estados Unidos. Los multimillonarios digitales están trabajando en esto. La premisa subyacente es que la NASA debe encontrar una solución para alimentar a los astronautas durante viajes interplanetarios muy largos, para evitar que desarrollen deficiencias. La NASA no disponía de fondos, así que recurrió al sector privado para desarrollar proteínas animales artificiales. El primer experimento se realizó con células de peces dorados. Fue todo un éxito. A partir de ahí, estamos dentro de las reglas de la competencia neoliberal, y esto se desarrolla muy rápidamente. El primer filete in vitro se creó en 2013: a 250.000 dólares por 140gr. Todas las herramientas se encuentran en Silicone Valley, California. Esto facilita las cosas. Descubrimos las tijeras de ADN (por 300 dólares se puede comprar un kit y hacer modificaciones genéticas). Esta tendencia fomenta las vocaciones.

### Financiación de los filántropos estadounidenses

Estos jóvenes investigadores se dirigen a los que tienen dinero (como Zuckerberg, etc.). Gracias a los incentivos fiscales, se dedicarán 13.000 millones anuales a esta investigación en Silicon Valley. Al principio, la investigación produce un falso pollo a partir de un puré de guisantes. Es un éxito, el dinero se multiplica y pueden salir a bolsa. Aquí es donde comienza la carne in vitro.

La Silicone Valley Foundation también desempeña un papel fundamental. Se trata de la “red de altruistas eficaces”. Este movimiento lo desarrolló Peter Singer, el autor de “Liberación animal”, que es una gran referencia para los veganos. La idea básica de este movimiento es que el deber moral de cada ciudadano es dar un poco de su dinero para disminuir el sufrimiento moral de los más pobres. La filantropía en Estados Unidos es muy importante. Así, el liberalismo es el rey. Estas organizaciones captan el dinero y lo destinan a las causas que consideran adecuadas. Así, los primeros en subvencionar la carne in vitro son los “proyectos de filantropía abierta”.

Estos beneficios también interesan a los productores de carne tradicionales. Están en la bolsa con Cargill, GBS, Tyson foods, etc. En Europa, Jeremy Coller, que es vegano, está creando fondos de inversión para promoverlo. Es el primer actor del buen mercado, el inversor FAIRR (Farm Animal Investment Risk and Return), que moviliza el dinero de pocas empresas europeas, entre otras: Whole Food, Carrefour, Domino’s pizza, Nestlé, Unilever, Wallmart, etc.

En Euskal Herria ya tenemos un ejemplo de cómo los inversores han comenzado a apostar seriamente por proyectos para hacer que este proceso de laboratorio pase a una fábrica que pueda producir de forma masiva. Una de estas apuestas ha sido la del gigante cárnico brasileño JBS que invertirá 36 millones de euros en la empresa de Gipuzkoa, BioTech Foods, para que desarrolle una fábrica para 2024. Hasta ahora, solo tres países tienen proyectos activos: Estados Unidos, Holanda e Israel.

Su método consiste en asustar a otros inversores con críticas, para disuadirlos de invertir en la industria cárnica tradicional. Como la agricultura industrial es cada vez más criticada, las multinacionales activas ven en la producción de células una nueva inversión que les permitiría conservar su lugar.

EL GOOD FOOD INSTITUTE, es uno de los pilares de la propagación de las ideas cárnicas sucedáneas. Es la herramienta de producción intelectual y de presión que trabaja con los gobiernos para cambiar la normativa. Tiene el mercado europeo a través de la Universidad de Cork en Irlanda.

### La investigación

En Francia, por ejemplo, el Instituto Nacional de la Investigación Agronómica (INRA), el instituto público encargado de las investigaciones sobre la agricultura, no aborda la agricultura in vitro, pero la mayor cooperativa de Francia, INVIVO, anunció el año pasado que había reservado una partida en su presupuesto para investigar sobre este tema. Y en la UE, el programa Horizonte 2020, bajo el disfraz de la evolución industrial, apoya esta producción sin pasar por procesos democráticos. Es mucho dinero que no se debate en la PAC y que no llega al Parlamento.

Los grupos políticos, generalmente progresistas, tienden a escuchar a L214 (L214 es una organización francesa de derechos de los animales). Es difícil posicionarse sin causar confusión. Sin embargo, el fin de la producción de carne y el vegetarianismo sintético puede significar el fin de los agricultores. La línea es borrosa y se mantiene borrosa.

### Carencia de legislación

La introducción de la carne en Europa aún no está autorizada. Los únicos debates que se han producido en el último año han sido sobre la denominación de “carne” para estos productos

## LOS ARGUMENTOS UTILIZADOS

Los promotores de la “carne” de laboratorio argumentan que es un producto milagroso: sería favorable para el clima, para el bienestar de los animales, para la salud (se reduce el colesterol, se puede añadir omega-3), pero se trata de un discurso ideológico.

Inseguridad alimentaria

Sin embargo, investigadores del INRA han trabajado en el hecho de que si este método funciona sin interrupción, esta reproducción celular no está regulada, como en un cuerpo. Por estadística, las células cancerígenas se introducirán inevitablemente en la producción in vitro. Es complicado detectar esto a escala industrial. También hay incertidumbre sobre el desarrollo de patógenos en esta producción, así como la alta concentración de hormonas en este producto de consumo. Como este producto se desarrolla con plástico, se plantea la cuestión de la intoxicación por disruptores endocrinos y otras sustancias tóxicas vinculadas al plástico. Por todas estas razones, es imposible predecir con certeza las consecuencias a largo plazo del consumo de estos productos.

El falso argumento de la solución al cambio climático.

Existen estudios contradictorios. Algunos dicen que la agricultura celular es milagrosa desde el punto de vista ambiental. Sin embargo, los últimos estudios (en particular el de la Martin School de Oxford) demuestran que esta práctica es, en definitiva, mucho más contaminante en términos de C02 que la agricultura. Esta producción in vitro debe realizarse en un entorno estéril, lo que requiere mucha energía. Además, esto consume C02 que permanece en la atmósfera durante cientos de años, mientras que el metano permanece en la atmósfera durante “solo” diez años.



# IPAR EUSKAL HERRIKO HAUTETSIEK **EZEZKOA EMAN DIOTE AHTARI**




Abendua erabakigarria izan zen Abiadura Handiko Trenaren eraikuntza proiektuarentzat. Proiektua Frantziako Hego-Mendebaldean koordinatzen duen prefetak eskaturik, tokiko erakundeek AHTari egingo dizkioten ekarpen ekonomikoak bozkatu behar izan zituzten. Izan ere, iragana zela uste genuen AHT proiektu hori berriz abiarazi dute Jean Castex Frantziako lehen ministroak eta Akitania Berriko presidente den Alain Roussetek. Berriz ere mahai gainean jarri dira trenbide berri baten eraikitzeko beharra eta erakundeen parte hartze ekonomikoa.

Abenduaren 13an, Akitania Berriko kontseiluak eman zuen lehen urratsa AHTa finantzatzeko 710,3 milioi euroko aurrekontua bozkatuz. Diru zama hori 40 urtean epekatuko da, urtean 20 milioi jarriz. Hortaz, 14 miliar eurotan estimatua den obra Estatuak finantzatuko luke %40ean, beste %40 Okzitania eta Akitania Berria eskualdeen artean eta azken %20ak Europako funtsetatik ordainduko lirateke. Nahiz eta Alain Rousseten ahoan proiektu "bikain eta beharrezko", baita "ekologiko" honek Eskualde Kontseiluan gehiengo handi baten sostengua lortu zuen, zenbait erakunde proiektuaren kontra azaldu dira, besteak beste, Ipar Euskal Herriko hiru probintziak biltzen dituen Euskal Hirigune Elkargoa.

## EUSKAL HERRIAK EZEZKOA

Joan den abenduaren 16an, departamenduko kontseilariek 70 milioi euroko ekarpena onartu zuten; nahiz eta Eskualdeak 147,4 milioi eskatu zizkien. 70 milioi horien artean, 16 milioi jadanik existitzen diren lineak hobetzera zuzenduko lirateke (Akize-Baiona-Hendaia eta Akize-Paue). Departamenduko presidente den Jean-Jacques Lasserrek, AHTaren inguruan diren erronka politikoez eta kontrakotasunez kontziente, "bai, baina" estrategia erabili zuen: proiektua sostengatuko du, baina baldintza batzuekin. Hautu hau defendatzeko, bozka egunaren bezperan, presidenteak lurraldearen isolamendua aipatu zuen, hautetsiei "Euskal Herria isolaturik ez uzteko duten ardura" oroitaraziz. Joseba Erremunguy, Baionako hautetsia kontra agertu zen, "ekologikoki zentzurik ez duen eta Euskal Herriko etxebizitzaren problematika areagotuko lukeen" proiektuaren kontra. Ildo beretik, EHBAI alderdiko bi hautetsiek parte hartze ekonomiko horren kontra bozkatu zuten "eragin ekonomiko, natural eta sozial suntsitzailea duelako eta Euskal Herriak beste gizarte eredu bat merezi duelako". Aipatzekoa da gehiengoaren parte diren Ipar Euskal Herriko beste hautetsi batzuek zuri bozkatu zutela.

Elkargoari dagokionez, kontrakotasuna argiago agertu zen hautetsien %78aren ezezkoarekin. Abenduaren 18an egin zen Kontseiluan eskatu zitzaien Ipar Euskal Herriko hautetsiei Bordele-Akize eta Bordele-Tolosa lineak finantzatzeko proiektuari buruzko iritzia emateko. Aldeko iritzia agertuko balitz, ondotik Elkargoaren parte hartze ekonomikoa bozkatu beharko lukete (proiektuan 45,8 milioi euro). Alta, bozka historiko honek Ipar Euskal Herriaren kontrakotasuna erakutsi dio AHT proiektuari. Linea berri baten eraikitzeak ekarriko lukeen hondamendi ekologikoaz gain, hautetsien gehiengoak azpimarratu du duela gutxi onarturiko Bizitegien Tokiko Planarekin ez datorrela bat, izan ere, lehentasuna etxebizitzaren eta laborantzaren arloko politika publikoei eman nahi zaie. Tokiko hautetsiek jadanik existitzen diren trenbideak berritzearen alde egin dute eta zenbaitek proposatu dute abandonaturiko trafikoaren eta mugaz gaindiko trafikoaren behatoki bat sortzea.

## BORROKAK SEGITZEN DU

Abenduaren 20an ateratako komunikatuan, Ingurumenaren defentsan ari diren elkarteen kolektiboak (Cade) Elkargoaren erabakia txalotu zuen "arrazoiaren alde egin dutelako eta mundu xume eta solidarioago bati buruz zuzendua delako". Cadeko kide den Victor Franchonen arabera, "AHTak 4000 ha baso eta laborantza lur suntsituko ditu, baita babestutako guneak ere". Proiektuaren inkoherentziak azpimarratzen ditu, izan ere, "irabaziko den denbora lotsagarria da, jakinda lineak ez direla saturatuak eta merkantzien garraioa kaltetua dela". Urruñako laborari den Ttotte Elizondok gaitzesten du "hainbesteko dirutza alferrik erabiltzea", linea hori eraikitzeko erabiliko diren lurrak lortzeko erabiltzen diren metodoak salatuz. Victor Franchonekin bat egiten du: herritarrek kontzientzia hartu dute eta borrokarako prest dira.

AHT gelditu!
ELKARLANA



